



Lantegi Batuak

2020 Txostena



Lantegi Batuak

Desgaitasuna duten pertsonei lan aukera egokituak eskaintzen dizkien irabazi asmorik gabeko erakundea gara. Bereziki adimen-desgaitasuna duten bizkaitarrekin egiten dugu lan, haientzat ahalik eta garapen handiena eta bizi kalitate onena lortzeko xedez.

Hori lortzeko, ingurumen arloko ekimen lehiakorrek garatzen ditugu eta desgaitasuna duten pertsonei beren gizarteratze eta laneratze prozesuan behar duten laguntza ematen diegu.




Pertsonak
3.144



Desgaitasuna
%82 DdP



Adimen D.
%60 AD



Enpresetan
%16 AD



Salmentak
71,3 M€



Dirulaguntzak
18,5 M€



Salmentak/Sarrerak
%79 Aut

Enpresa jarduera

71,3 M€-ko

Fakturazioa: Diru-sarrearen
%79 salmentetatik datoz

35,1 M€


Balio Erantsian

+150

Bezero berri

Dibertsifikazioa

- Metalaren eraldaketa **%22**
- Muntaketa elektromekanikoak **%22**
- Garbiketa **%19**
- Elektronika **%11**
- Konponbide logistikoak **%9**
- Lorezaintza **%6**
- Beste zerbitzu osagarriak **%4**
- Dokumentuen kudeaketa **%3**
- Kableatuak **%3**



“

2020a egokitzapen urtea izan zen, eta bezeroei berehalako erantzuna emateko unea. Alarma Egoeraren hasieratik, hornikuntza guztiak bermatu genizkien oinarritzko sektoreetako gure bezeroei, hau da, energia, ekipamendu elektrikoko ondasun, ekipa mediko, babes indibidualerako ekipa, segurtasun, elikadura edota logistika arloko bezeroei.

Gainera, gure jardueraren zati bat NBEak egitera bideratu genuen, ohiko bezeroen zein bezero berrien eskaerari erantzun ahal izateko.




Pertsonak

Ehuneko ehun gai,
ehuneko ehun funtsezko.

3.144 PERTSONAK
Lantegi Batuaken

%33 Emakumeak
%67 Gizonak



%82
desgaitasuna duten
pertsona

1.485 adimen-desgaitasuna duten
PERTSONA

34% Emakume
66% Gizon





“

Pertsonenganako arretari dagokionez, COVIDaren aurkako segurtasun-baldintzak bermatu eta garapen profesional eta sozialerako beharrezko laguntzak ematen jarraitzea izan zen xede nagusia.

Garatuta genituen sistema digitalak funtsezkoak izan ziren. Horien bidez, beharrezko zerbitzu eta laguntzak ematen jarraitu ahal izan genuen: Laguntza soziorabonal birtuala, on line prestakuntza plataforma, tele-lana errazteko sare birtual pribatuko sistemak.



Pertsonentzako orientazioa

5.441 ORDU 

orientazio profesionalera bideratuak

412 Orientazio
ESKAERA 

%33  **%67**
Emakume Gizon

93 adimen-desgaitasun
PERTSONAK

Garapen Soziolaborala

Adimen-desgaitasuna edota
gaixotasun mentala duten pertsonen

% 100_{ak}

laguntza-plan indibidualizatua dauka.

69 

PERTSONAK

lortu dute garapen profesionala.



21

pertsona hasi dira **enplegu arruntean**
(7 emakume / 14 gizon).

3

pertsonak lortu zuten aurrerapena
Enplegu Zentro Berezian.

9

pertsona pasa ziren
Okupazionaletik Enplegura.

36

mailaz igo ziren
Zerbitzu Okupazionallean.

Pertsonak

“

Pandemiaren ondorioz
etxean geratu behar izan
zuten Zerbitzu
Okupazionalako
erabiltzaileei arreta
ematen jarraitzeko,
Laguntza Soziolaborala
emateko Sistema Birtuala
jarri genuen martxan:
Urrunetik emateko
hainbat laguntza-mota
egituratu genituen
Lantegi Batuak
webguneko plataforma
batean. Horrekin batera,
telefono-deiak eta
bideo-deiak ere egin
genituen.

Lagundutako enplegua

368 Bisita enpresetara

(prospekzioa, legea betetzeko eta kontratazioak egiteko aholkularitza).

Desgaitasuna duten

21 pertsona gehiago

sartu dira enpresa arruntetan.



Prestakuntza

30.880 prestakuntza-ordu

(2019an egindakoaren %53).

2.044 pertsonak parte hartu dute

“

Online prestakuntza:

2020an Lantegi Batuak Mobile izeneko online plataforma abiarazi genuen. Horrela, gure prestakuntza-planarekin jarraitu ahal izan genuen, pertsonen eta gure jardueraren beharrizanetara egokitu, pandemia betean, eta digitalizazioan aurrera egin.

Horri esker, 2020an 793 pertsonak jarraitu zuten aurrera beren garapen profesionalean.





Lan Eskola

Lan Eskola izeneko ekimenaren helburua **desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzea** da. 2016an sortu zen.

Lan Eskolaren bidez, **Lantegi Batuaken zentro homologatu edo kolaboratzaileetan prestakuntza ziurtatua burutzen da.**

Prestakuntza teoriko, profesional eta zeharkakoa osatzeko, **tutoretzapeko praktikak** egiten dira eta bide-laguntza pertsonalizatua ematen da.

2020an, programatutako jarduera egoera berri batera egokitu zen, **online formatuak** eta urruneko formatuak lehenetsi ziren eta arrakala digitala murriztera bideratutako materietan sakondu zen.



%39

Kontratazioak



%62

Parte-hartzaile



%7

Prestakuntza jarduera

Kohesio Soziala

214 M€ Lantegi Batuak sortutako Gizarte-balio Integratua

Komunitatean parte hartzea:

150 parte-hartze ekintza Komunitatean

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak, bereziki Zerbitzu Okupazionalako erabiltzaileak, hainbat jardueratan parte hartu zuten komunitatean, hala nola kultur, kirol, prestakuntza eta lankidetzaren ekintzetan, ekintza pedagogikoetan eta bestelakoetan.

Aurrez aurreko 7 bisita

Horien artean, Iñigo Urkullu lehendakariak SestaoBarri zentrori egindakoa, EHLABEren lanari aitortutako errekonozimendu gisa. Gainera, 18 enpresa Abadiñora gerturatu ziren, Etengabeko Hobekuntza ereduaren kudeaketa praktikak ezagutzeko.



23 jardunaldi eta webinar

Lagundutako Enplegua, Kudeaketa Aurreratua, eraldaketa digitala eta zahartze aktiboaren inguruko ereduak aurkeztu genituen. Berrikuntza Soziala, Lan Eskola eta Kontabilitate Sozialeko ereduaren inguruan izan ditugun esperientzien berri emateko ere parte hartu genuen hainbat ekitalditan.

Desgaitasuna duten pertsonentzako **X. Beka Deialdia,**

Deustuko Unibertsitatearekin, UPV/EHU, UNIR eta Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean.

“

Ehuneko Ehun funtsezkoak:


2020an, pandemiaren hilabeterik gogorrenetan, Lantegi Batuak erakundeko pertsona askok aurrera jarraitzeko bultzada eman zuten, beren lanpostuen bidez: NBEak eta ekipamendu elektrikoetarako osagaiak eginez, egoitza eta eremu publikoen mantentze-lanak burutuz... Pertsona horien lana ezinbestekoa izan zen gizartearen funtzionamendurako.

Mugarriak

Lagundutako Enpleguaren 25. urteurrena

Desgaitasuna edota laneratzeko zailtasun bereziak dituzten **500 pertsona kontratatu** dira Bizkaiko 220 enpresatan. Gaur egun, desgaitasuna duten 124 pertsona daude kontratatuta 88 enpresatan. Adimen-desgaitasuna duten pertsonak dira, batez ere.

Kontratu motak:





Errekonozimenduak

Betearazte Penalaren Sistemaren **UNE 19601** Ziurtagiria. Gainera, Zentro Logistikoak eta Elekbarri zentroak **ISO 9001:2015** eta **45001:2008** arauen arabeko ziurtagiria lortu zuten.



76

Pertsonak

lortu zuten beren esperientzia profesionalari dagokion **errekonozimendua**.

1,5 M€

inbertsio produktibo, teknologiko eta lehiakortasun hobekuntzarako inbertsioetan.

COVID

kudeaketa

Aste gutxi batzuetan, **Lantegi Batuaken** espazioak egoera berrira egokitu ziren, **COVID**aren aurkako segurtasun-neurri guztiak bete eta pertsonen segurtasuna bermatzeko. Era berean, gure jarduerak egokitu genituen bezeroei eta beren beharrezaneiei erantzuna emateko.



Enpleguak eta jarduera mantentzea lortu dugu.





Lantegi Batuak



www.lantegibatuak.eus